


POLENTZI GEZALA:

Txistuaz mundua liluratu duen lezotarra

Kale Nagusiko Alai-Etxeko leiho batetik txistuaren nota dardarti eta biziak isurtzen ari dira kairantz, honen iragandako nor-tasuna berpiztuz; nota kiribilkor lirainak Kale Nagusiaren berezkotasuna areagotuz, txoko oro alaituz Alai-Etxetik Andreonera, Andreonetik Euguzkialdera.

Leiho parean, itsasoari begira, oroitzapenen berrikusketa herrimintzuan murgilduta, txistu notezko zorabioan, Polentzi Gezala, oporraldi bezala, txistua jotzeko duen maisutasunaz Maritxu izeneko bariaziozko doinua joaz aurkitu dugu.



Gure presentziaz ohartu denean, agur alai eta irrifartsuz hartu gaitu, txistua eta ttuntuna maitekiro mahaigaineratuz.

Berehala eseri gara bere arreba Miren eta Anie emaztarekin batera egongelako besaulkietan, giro epelean, mundu zeharkatu duen artista begibizi eta etorri bikaineko solaskidearen ondoan bere izenaz, izanaz eta orainaz galdetzeko asmoz; Euskalerrriaren armarrria horman zintzilik bilkuraren zaindari dugularik.

Noiz jaio zinen eta zer gogoratzen duzu zure haurtzaroaz?

1919. urteko azaroaren 20an jaioa naiz. Nere gurasoak Pontxio, Gure-Bordakoa, eta Barbara, Kabitte Haundikoa ziren. Aitaren aldetiko aitona Regino zen, 30 urtez Lezoko alkate izana. Nere aita ere hainbat urtez herriko alkatea izan zen.

Haurtzaroaz, hemengo jostaketak ditut gogoan, Gure-Bordan nola aritzen ginen... Gero eskola. Goiko eskolara joaten ginen; hau erabat erdaldun zen, ezin genuen euskaraz hitzik ere esan. Nere lagunak Felix Unzain, Joan Bautista Berasarte, Gure-Bordako Joxe Juan, Bittor Irazu, Eli Salaberria, Joxe Migel Treku eta beste zenbait ziren. Dotrinara joaten ginen, Don Luis apaizarekin lehenengo eta Don David Esnalekin aurrerago. Jaizkibela maiz joaten ginen surtarako pinukoskor bila. Kaira ere bai; etxe ondoko kaira ere joaten ginen izkiratara, almejatara, e.a.

Zer ikasi zenuen eskolan?

Eskolan gauza haundirik ez, oinarrizko ikasketak; orduan ez bait zen orain bezala. Soldaduzka bitartean ere aritu nintzen, bai, ikasten, baina honek eten egin zuen dena; zazpi urte pasa nituen soldaduzkan.

Badakigu musikarekiko zaletasuna familiagandik datorkizula. Kontaiguzu nola sartu zinen musikaren munduan.

Nere aitona musikaria zen, zeharkako flauta jotzen zuen. Aita, berriz, Lezoko Udal Bandaren zuzendaria zen. Anaiek, Luis eta Reginok, saxofoia eta pianoa jotzen zuten. Luisek erakutsi zigun solfeoa anaiarreba guztioi. Lukek ere pianoa jotzen zuen; Pasai Donibaneko Ambrosio Etxarrirekin aritu zen. Irenek, arreba zaharrenak, oso ahots ona zuen eta abestu egiten zuen. Eta azkenik, Xabin, gazteena. Honek denetik jotzen zuen: pianoa, txistua, saxofoia, esku-soinua, etab. Horixe zen nere aitaren nahia; anaiarreba guztiok musika tresnaren bat jotzen jakitea, alegia.

Honez gain, nere arrebek antzerkigintzarako gaitasuna ere bazuten, eta horretan aritu ziren Batzoki zaharrean.

Zeintzu izan ziren zure txistu irakasleak?

Patrizio Intxaurrendietarekin hasi nintzen; berak erakutsi zizkidan lehen eskalak. Gero, Erretereriako Alejandro Lizasorengana jo nuen. Ondoren, sakontze fasea esan genezakeena, Donostiako Isidro Ansorenarekin egin nuen.

Non jotzen zenuen txistua garai hartan?

Beno, herriko jaietan, plazan jotzeko deitzen zidaten; Udalbatza elizaraino laguntzeko eta horrelakotan.

Familia abertzale sutsu batetako seme zaitugunaren zalantzarik ez dago. Nola bizi izan zenuten Gerra Zibila?

Gerra Zibilean Santanderra ihes egin genuen. Hau bukatutakoan, Lezora itzuli ginen. Behin hemen, bai gure etxea bai aitaren Antxoko bulegoa miaturik aurkitu genituen. Nere aita aduana agentea zen. Hortaz ezer gabe geratu ginen, bizitza berregin beharrean. Anaia eta arreba bat espetxeratu egin zituzten, eta beste arreba bat hamabost urtetarako desterratua izan zen, Euskadin sortu lehenengotako ikastola bat zuzentzen zuelako.


Ni zazpi urtetarako soldaduzkara eraman ninduten; lehenik Lizarrara, gero Iruñera, handik Bartzelonara, eta azkenik, Loiolara.

Behin Gerra Zibila bukatuta, erabat murgildu zinen folklorea eta musikaren munduan, ezta?

Etorki dantza taldearekin Parisa joan nintzen lehendabizi; gogoan dut gainera jarri nien baldintza, hau da, bi hilabetetarako joango nintzela, gehiago ez. Horral bi hilabetetarako abiatu eta berrogei urte daramatzat jadanik Lezotik kanpo.

Lehenengo emanaldia Campos Eliseos-en izan zen. Arrakasta haundia izan genuen. Handik Londresko Albert-Hold-a, Bruselasko Teatro de la Moneda delakora, La Hayara... Europa osoa igaron genuen.

Oldarra dantza taldearekin Ameriketara joan nintzen sei hilabetetarako: Filadelfia, Washington, New York, Las Vegas...



Non izaten ziren emakondak?

Teatro printzipaletan batez ere. Arrakastarik haundiena New York-eko Carnegie-Hallen izen genuen. San Franciscon ere bai, txistuaz kontzertoa hasi eta behin baino gehiagotan gelditu arazi zidaten txaloka.

Handik Idahora joan ginen. Euskaldun asko dago lurralde hartan. Han ere oso ondo. Kanadan ere izan ginen; Hollywoode ere bai. Artista asko ezagutu nituen han: Marlon Brando, Jacques Bergerac, etab.

Diozunez, pertsonaia eta artista franko ezagutu zenituen. Zeintzu?

Bai, Aipatu ditudanaz gain, Liz Taylor, Brigitte Bardot. Honen filme batetan parte hartu nuen; lorategi batetan txistua jotzen aritu nintzen hantxe.

Eisenhower presiente ere ezagutu nuen; Washingtonen kontzertua eman eta zoriontzera etorri ondoren, bere rantxora gonbidatu ninduen afaltzera. Afal ostean, bere emaztearekin aritu nintzen dantzan.

Beatriz eta Irene printzesek ere beren jauregira bazkaltzera gonbidatu ninduten.

Tunezko Burguiba presentearekin izan nuen harremana.

Hainbat artistarekin ibilia zara, ezta?

Bai. Gaur egun Estatuko dantza akademiako zuzendaria den Mariemma espainiar dantzariarekin Europar zehar ibili naiz. Carmen Amayarekin ere bi aldiz ateratu nintzen txistua jotzen. Artista gehiagok deitzen zidaten baina ezin nuen denekin kunplitu, bat edo besteren artean aukeratu behar izaten nuen. Josefina Bakerren kantaldietan ere eman izan ditut kontzertuak.

Zu garai hartan artista profesionala zinen, noski.

Bai, horixe izan zen nere aukera.

Noiz joan zinen Parisa?

1951 izango zen.

Noiz utzi zenion munduan zehar etengabe ibiltzeari?

Ezkontza medio bizimodu hori utzi beharrean aurkitu nintzen. Parisen denda nuen eta, jakina, orduan pentsatu nuen munduan bueltaka aritzea ez zela po-

sible. Horrela, bada, Parisen geratzea erabaki nuen. Halere, gauetan galak ematen jarraitu nuen.

Sari bereziak ere irabazi dituzu.

Bai. Bi alditan aurkeztu naiz eta bietan irabazi dut. Lehenbizikoa Tunezen; 18 nazio aurkeztu ziren eta neu izan nintzen txapelduna. Gero Hungarian; han ere txapeldun atera nintzen. Txapelketa hauetan, Frantzia ordezkatzuz, beste herrialdetako musikari franko topatu nituen.

Halere, daukadan saririk haundiena Parisko Udalak emandako Arte, Zientzia eta Letretako domina da. Neretzat hau balio haundiko saria da.

Behin baino gehiagotan omendua izan omen zara. Bilbon bi omenaldi egin zizkidaten Buenos Aires antzokian Guillermo Asteizzak antolaturik. Zilarrezko txistua oparitu zidaten, gogoan dut oraindik. Oso hunkigarria izan zen. Trena geltokiratu eta «ongi etorri Polentzi» zioen pankarta irakurtzea.

Diskoak ere argitaratu dituzu.

Beno, Columbiarekin bi egin ditut, Kanadan beste bat eta Parisen lau. Bostgarrena oraindik atera ez den arren, bideratuta dago.

Munduan zehar hainbeste ibili ondoren, izango duzu gertaera xebeberen bat. Kontaiguzu.

Washingtonen gertatutakoa ez dut sekula ahaztuko. Emanaldia amaitutakoan, ikusle batek nere txistuaren truke txeke txuria eskeini zidan, nik nahi nuen diru kopurua jar nezan. Nik ezin nuen horrelakorik onartu eta honela erantzun nion. «bihotzeko gauzek ez dute preziorik».

Anekdotak gisara, Donostiako M^a Victoria Antzokian ospatu zen musika hamabostaldian Mariemma dantzariak soinekoa aldatu behar zuela eta, betelana egiteko piezatzoren bat jo nezan eskatu zidan. Aldatu ondoren, ez zuen presarik eskenatokira itzultzeko; txistuaren doinuak entzunez, gus-tora zegoen nonbait.

Las Vegasen, kontzertua amaitutakoan, ikusle bat altxa eta hunkiturik berrakada hasi zitzaidan.

Floridan bizi zen Gaztelu lezotarra zen, euskal txistulari baten kontzertua zegoela enteratu eta Floridatik Las Vegasaino propio hegazkinez etorri zena.

Parisko Liburutegi Nazionalean txertaturik omen dago zure izena.

Bai. Han, txistuaren antologiarekin batera nere bizitza dago jaso. Azkeneko diskoa ere bertan dago, badakizu, gerorako.



Nondik ateratzen dituzu interpretatzen dituzun piezak?

Nik besteen piezak jo izan ditut beti. Interpretazio lanetan, zeozer egin badut ere, ez naiz murgildu. Hori ez da nerea.

Obrak liburuetatik ateratzen ditut, baita Txistulari aldizkaritik ere. Honela bada, Santos Intxausti, Isidro Ansorena, Basurko, Butron, Laskurain eta abarren piezak jotzen ditut.

Etxaun idazleak idatzitako obren bilduma osoa neri eman didate. Orain badut non aukeratua.

Ba al duzu piezaren bat besteak baino gustokoagoa?

Bai. Isidro Ansorenaren Maitatia pieza. Neuk konpondu ondoren, Irene Maitatia izena jarri nion. Pieza sinplea da baina erruz gustatzen zait. Tarteka, nere arreba Irene zenaren oroimenez jotzen dut. Oso dut gogoko.

Gaur egun nola ikusten duzu euskal folklorearen osasuna?

Nere eritziz, gaur egun folklorea beste paper bat betetzen ari da. Ez da lehen bezala. Lehen parte hartzea askoz ere nabarmenagoa zen; herriko jaietan mundu guztiak dantza egiten zuen, esate baterako. Orain, aldiz, joera hori itzali xamar ote dagoenaren susmoa daukat. Gaur egun folklorea erakutsi egiten da jaialditan, kontzertutan,... lehen, aldiz, bizi.



Txistuari dagokienez, azken urteotan asko aurreratu eta sakondu da; maisu haundiak daude. Halere, uste dut alor honetan lan haundia egin litekeela aurrerantzean.

Orain urte batzu Paris aldean izugarria zen euskal folklorearen arrakasta. Eusten al zaio horri gaur egun?

Bai, zalantzarik gabe. Parisen gauza bat dago argi eta garbi, egin beharrekoa ondo egin beharra dagoela. Han ez da erdipurdiko lanik onartzen; sentsibiltate haundia dago.

Zure semeak ere folklorean txoil murgildurik omen dabilta.

Euskal musika talde bat dute. Jon Mirenak 18 gizonen osatutako abesbatza zuzentzen du eta Pierrek, zaharrenak, Jeiki izeneko euskal dantza taldea. Esan daiteke Gezalatarren hizkuntza, musika eta orohar folklorearekiko grina eta zaletasunek baduela jarraitzailerik oraingoz behintzat.

Zuk zer egiten duzu oraindik Parisen?

Ni lanbidez jostuna naiz, eta Parisen denda-tailer bat eramaten nuen. Orain erretiroa hartu berria dut. Hortaz, nere denboraren zati bat dantza taldean ematen dut; ni naiz haien txistularia.

Parisen badago Gaztedia izeneko beste dantza talde bat, eta horiekin ere aritzen naiz.

Parisko Balet Popularrekoek ere deitzen naute, ikuskizuna euskal dantzez bukatzen bait dute. Hauekin emanaldi asko egiten ditut.

Azkenik Polentzi, zer da bizitzak eman dizun oparirik ederrena?

nere bi semeak eta emaztea, noski! Aniek asko lagundu eta animatu nau hautatu dudan bizikera hau aurrera ateratzen; izugarria da Euskalerriarekiko duen mai-tasuna.

Txistulariaren begirada noragabea
aintzinako ametsetan amildua
eguzki irripek dagite galduago
itxaropen eta oinazezko oihanean.

Hatz zimur lirainei
dardarrez darie
askatasun ereserki
ereintzaren igalia, solemneki.

Tttunttunaren altzotik errepikan
bortitz da durundia ilki,
oihartzunaren irrintzia jaurtiki.

Eztarria arnasbeharka,
bihotza hasperenka,
ziztuak hormatan punpaka.

Txistu noten erraietan
iraganaren mintzoa
zein den lerdan,
zein den eder...
hots urrundari, mezu bizi...
doinu bihotzeko!

Ohore zuri
Gezalatar Polentzi.

— JOXE JUAN UGALDE ORDOKI —